



**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO**

hitza



**Ostirala
2008-07-11**

VIURTEA 1.483.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Udaleku ibiltariko kideak jolasean, atzo. N.GARZIA

LEITZAN IZAN DIRA BIZKAIKO UDALEKU IBILTARIKO GAZTEAK

LEITZA 60 lagun Izabatik Hernanirainoko bidea ari dira egiten; herenegun Leitzara iritsi ziren, eta gaur Goizuetara abiatuko dira »7

Otaegi eta Mujika II. mailako txapelaren bila

AIZKORA Eskualdeko zazpi aritu dira finalerako lehian; Zizurkilgoa eta Ibarrokoa pasa dira »6

Esklerosi anizkoitzaren kanpaina gurean

TOLOSA Usabalen hainbat ekintza egingo dituzte etzi, gaixotasunaren inguruan informatzeko »3

Hasiera eman diote 40. Paleta Txapelketari

TOLOSA Atzo hasi zen Tolosa CFk antolaturiko txapelketa; Berazubiko frontoian dira partidak »3



2 harpidedunentzat zozketan **bina afari**

Uztailaren 11 eta 12an **Alegiako** Elorri pilotalekuan ospatuko den **Garagardo Festarako**

irabazleak:

- Maribi Lazkano (Ikaztegieta)
- Juan Jauregi (Gaztelu)



HITZAren harpidedunentzat abantailak

Saria jasotzeko Garagardo festako txarteldegian izena emanda eskuratuko dituzue txartelak.

Z **Zurea da hitza**

Atal honetan zuen kezak, iradokizunak, eskertzak... argitaratzen ditugu ostiralero. Horiek guri helarazteko hainbat bide dituzue: Interneten, 'www.tolosaldekohitza.info' webguneko 'Zurea da hitza' atalean; e-mailaz, 'tolosaldean@tolosaldekohitza.info' helbidean eta 943 655695 zenbakian.

TAO makinak gauzez eta jai egunetan ere bai

Lehengoan autoa aparkatu nuen Tolosan igandean TAO zonalde batean, noski, non bestela? Ba kontua da pentsatzen nuela orain arte bezala ezin izango nuela txartela erosi hurrengo egunerako, ba ez, ez zen horrela izan. Izan ere, TAO makina piztuta zegoen eta erosi ahal izan nuen txartela, autoan jarri, eta etxera lasai joan nintzen.

Aitziber.**Noiz arte plastikoak kontenedore urdinetan?**

Gaur ere papera botatzeko kontenedore batean plastikozko jaboi pote bat ikusi dut, plastikozkoa! 2008. urtean gaude, eta benetan, lotsagarria iruditzen zait. Ez al da nahikoa informazio eman honen inguruan? Ez al dago nahikoa kontenedore? Ez ditugu 50 metro gehiago egin nahi plastikoa dagokion lekuan botatzeko? Pena, lotsa eta inpotentzia sentitzen dut, naturari errespetua faltatzeaz gain, kontzientzia pixka bat dugunoi ere faltatzea dela ikusten dut. Baliabideak badaude zaborra birziklatzeko eta bereizteko (azkenean) eta orain daukagunean ez ditugu ongi erabiltzen? zertan ari gara? Ez gara gai ikusteko zenbat kalte egiten ari garen hori egiten? Plastikoa kontenedore urdinera bota duen pertsona horrek isuna merezi beharko luke, eta lotsa sentitu egin duenagatik.

Beste herri batzuetan oraindik ez dago plastikoa botatzeko kontenedorerik, eta kontzientziatuta gauden batzuk kontenedore horien bila gabiltza, autoan poltsa bat beteta goazela (latak, tetrabrik-ak, bizilagun horrek kontenedore urdinera bota duen plastikozko jaboi pote bat...).

Pentsatzen hasteko garaia da: ze paisai nahi dugu egotea? Nolako mundua eta mendiak nahi ditugu?... Ez du balio esatea umeei: «aizu, paper hori ez bota lurrera». Esaldi hau prehistoriko xamarra da jada, eta ez du zentzurik guk plastikoa kontenedore urdinera botatzen jarraitzen badugu behintzat.

Soluzio bat behar da, haserre nago pasotismo eta axolagabe hauen jarrerarekin. Ez da hain zaila kontenedoreen koloreak ikastea, ez? Zer behar dugu, ikastaroren bat? Edo hemendik 50 urtera izango dugun paisaian hilabete batez bizitzea gonbidatuta?

Bukatuko dut, esanez, birziklatzen dakiten horiek (ez gara gutxi, seguru) ingurukoei irakasten-kontzientziatzen-erakusten-lantzen-

jorratzen jarraitzeko, nahi ez dugun mundu hori ez iriste aldera. Badugu lana...

Idoia (Tolosa).**Jesusen Bihotzakoak Donostian**

Duela egun gutxi Villabona-Zizurkilgo Jesusen Bihotza ikastolako LH 1.mailako ikasleak Donostira joan ziren egun pasa egitera. Goizean Kurtsal inguruan eta hondartzan izan ziren. Eguerdik aldera Kristina Eneako parkera joan ziren. Bertan bazkaldu zuten eta bazkal ostean, parkeko bazter guztiak miatu zituzten. Primerako eguna pasa zuten. Arratsaldean trenez itzuli ziren etxera.

Jesusen Bihotza Ikastola.**Oraindik ere zikinkeriaz**

Maxi Eroskiko zubitik igarotzen naiz egunero, nire paseotxoaa ematera. Duela egun batzuk, egunkari honetan bertan irakurri nuen, nola pertsona bat kezkatzen zen, erreka bazter horretan pilatuta zeuden zikinkerietaz. Ordutik hona, makina bat aldiz igaro naiz bertatik, baina gauzak ez dira aldatu. Oraindik ere, plastikozko boltsak eta bestelako zaborrak aurkitu daitezke bertan. Hori dela eta, alde batetik, horra gauzak bota dituztenei esango nieke, txukunago ibiltzeko, eta erreka denena denez, hobeto zaintzeko. Bestalde, eskertuko nuke, norbaitek (Udal garbitzaileek) hau garbitzea. Mila esker denagatik.

Tolosar bat.**Kirol omenaldiak****» Kale kantoitok****Joxemi Saizar**

Hemendik aste gutxitara Olinpiar Jokoak hasiko dira Pekinen eta euskal selekzioa ez da bertan izango. Gure eskualdeko ordezkariak (Leire Olaberria txirindulari ikaztegitarra eta Xabier Fernandez bela marinel ibar-tarra) bertan izango dira neke eta izerdi askoren ondoren lortutako emaitzei esker. Joaterik duten selekzio bakarrarekin joango dira noski. Beste aukerarik ez dute eta. Dominaren bat edo irabazten badute (Sidneyen Fernandezek urrea lortu zuenean bezala) herri-taren omenaldia jasoko dute. Ondo merezita gainera. Maila horietara ez baita edozein iristen.

Futbolari tolosar bat Eurokopa txapeldun izatera iritsi da. Parte hartzea zuen selekzio bakarrarekin, noski. Lehen aipatutakoak bezala. Euskal selekzioarekin jokatzeo aukera izan duenean, jokatu izan du. Honek ordea, ez du harre-ra ofizialik edo herri-taren omenaldirik jaso. Badakiz ez dela oso tolosarra, aspaldidanik joan zela kanpora bizitzera. Horregatik ote da? Edo Espainiako futbol selekzioarekin lortu duelako garaipena?

Udako giroan jarraituz, eta albiste lehorte frexkatzeo berri interesgarria jaso dugu egun hauetan: liburutegia ireki dute igerilekuan. Aspaldi behar zuen martxan, asmoa hala omen zen, baina orain arte ez da gauzatu. Orain zerbiztu hori ondo aprobetxatzea bakarrik falta da, erabilera egokia emanez. Eta wi-fi sistemarekin berdin.

Kulturak ere oporrak hartzen dituen garai honetan Gau Giro programa da oasi bakarra kultur basamortuan. Bihar bertan izango da kontzertu bat eta hortik aurrera udan zehar musika eta zinemasaio batzuk izango dira kultur lehorte frexkatzeo.

@ **Irudietan.** Eskualdeko ekitaldien argazkiak dituzue gure webgunean ikusgai: www.tolosaldekohitza.info



Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZAK Gipuzkoan 120.000 irakurleESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldekohitza.info / Tel.: 943-65 56 95

FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK

902 402 900
zerbitzu iraunkorra

BULEGOAK: Andoain · Donostia (Bellatokia) · Errenteria (Bellatokia) · Hernani (Bellatokia) · Lasarte (Bellatokia-Sulabea) · Pasala · Tolosa (Bellatokia)



Esklerosi Anizkoitzaren aldeko **Busti zaitez** kanpaina aurkeztu zuten herenegun eguerdian. HITZA

Esklerosi Anizkoitzaren aldeko 'Busti zaitez' kanpaina gurean izango da

Tolosa » Etzi, Usabal kiroldegian hainbat ekintza izango dira, gaixotasun honen inguruan informatzeko asmoz.

ERREDAKZIOA

Etzi Esklerosi Anizkoitzagatik **Busti Zaitez** kanpaina egingo dute Tolosan. Aurtengoa, eskualdeko hiriburuan ospatzen den laugarren aldia da. Kanpaina honen helburua gizartearen sentsibilizazioa eta dirua lortzea da. Eskualdean ez ezik, beste 13 tokitan ere egiten da gauza bera.

Esklerosi Anizkoitza Fundazioak, AEMGIren laguntzarekin, antolatutako jardunaldi solidario honen helburua, gizartearen sentsibilizazioa eta gaixotasun neurologiko honen sortarazten dituen arazoez informatzeko gain, ADEMGIk 2007ko maiatzean ireki zuen Esklerosi Anizkoitza eta beste gaixotasun neurologikoen zentroan gaixoei eskaintzen dien birgaitze zerbitzua finantzatzeko dirua lortzea da.

Busti Zaitez Euskal Herrian dagoen Esklerosi Anizkoitzaren aldeko kanpainarik garrantzitsuenak da eta urtero milaka euskal herritarrek parte hartzen dute. Joan

den urtean, 40.000 pertsonen hartu zuten parte eta aurtengoa kopuru hau gainditzea espero dute.

Esklerosi Anizkoitzaren alde lagundu edo kanpainan parte hartu nahi dutenek, etzi goizean, Usabal kiroldegira joan eta elkartearen stand-era hurbildu daitezke. Bertan, gaixotasunaren inguruko informazioa jasoko dute eta salmentan dauden Kukuxumuxuren produktuak erosi ahal izango dituzte. Baita, esklerosi anizkoitzagatik metro batzuk igeri egin. Ekimenean arte hartzen duten guztiak diploma bat jasoko dute eta jardunaldiaren amaieran, igeri egin diren metro guztiak zenbatuko dira.

Udaletxeko, Usabal kiroldegiko eta Tolosaldeko jubilatuen elkarteetako boluntarioen laguntza dute antolatzaileek, kanpaina aurkera eramateko garaian.

Gaixotasunaren ezaugarriak

Beste izen batzuekin ere ezagutzen den gaitz hau (Plakagisako esklerosia eta esklerosi barreiatua ere esaten baitaio) usuagoa da arraza zuriko pertsonengan (Europar Ingalaterran eta Holandan bereziki) Asian baino (Japonia, Txina, India, eta abarretan baino). Ingalaterran, adibidez, kasu bat izaten da 2.000 biztanleko.

Normalean (% 80tan) gaztaroan edo bizitzaren erdialdean izaten da, 20-40 urte bitartean, batez beste adina 28 urtekoa izanik. Oso-oso arraroa da haurtzaroen agertzea (10 urtez azpiko umeengan) eta baita 60 urte bete ondoren ere.

Gaur egun, agente infekzioso baten parte-hartzea posibletzat jotzen da, pertsonak konstituzioz aurrejoera berezia duenean eta auto-agresiozko mekanismo batekin batera. Ez da zuzeneko gaitz hereditarioa.

Nerbio-sistema zentralerako inflamazio kimiko desmielinizatzailea da; gai zurian kokatua bereziki. Infekzio edo hanturaren ondorioz, orbain batzuk agertzen dira, eta zikatritz edo orbain hauen barruan daude hondatutako mielina-zorroak. Kalte horiek direla medio, estimulu nerbioak ez da errotan, edo errotan bada gaizki; ez behar bezala.

Esklerosi-plakak ikus daitezke, ugari, modu irregularrean barreiatuak entzefaloon eta orno-muinetan, han-hemenka.

Oso aldakorra da gaixotasuna; askotan kontsultara joateko arrazoiak, besoan edo zangoan sentitzen duten nekea izaten da, edo ibiltzean, eskailerak igotzean edo korrika egitean dituzten zailtasunak. Bost kasutik batean neuritis optikoa izan daiteke lehen sintoma. Edo parestesiak eskuetan, besoetan, zangoetan eta abar.

Nagore Laffageren erailketa salatzen elkarretaratzeak

Tolosa - Leizta » 20:00etan izango dira, Triangulo plazan Tolosan, eta Lopeneko iturrian, berri, Leiztan.

ERREDAKZIOA

Pasa den astelehenean Orondritzen indarkeria zantzuekin hilda azaldu zen Irungo Nagore Laffage, 20 urteko emakume gaztearen erailketa salatzen helburuz, elkarretaratzerako deitu dute gaur iluntzerako Tolosaldeko eta Leitzako Bilgune Feministak. Tolosakoaren kasuan, *Eraso sexistei aurre hartu* lelopean egingo dute Triangulo plazan gaur, eta 20:00etan hasiko da.

Leiztan ere gaurko deitu dute elkarretaratzerako Bilgune Feministakoei. Hain zuzen ere, Lopeneko iturrian egingo dutela azaldu dute, 20:00etan hasita, *Emakumeon aurkako indarkeriarekin amaitu!* Nagore gogoan lelopean.

Bilguneetik azaldu dutenez, «Nagore Laffage indarkeria sexistaren ondorioz hildako aurtengo bigarren emakumea da. Bere erailketaren inguruko datu askorik ez bada gogore, uestezko hiltzailea atxilotuta dago eta 27 urteko gizon nafar bat da. Mugimendu feministatik egin ohi dugun legez, herri eta hiri ugarietan hurrengo egunetan konzentrazioak eginen dira erailketa hau salatzen eta emakumeon kontrako indarkeriarekin amaitzea denon ardurua dela gogorarazteko».

Nagore Laffage Casasola 20 urteko Irungo (Gipuzkoa) emakumea, Orondritzen (Nafarroa) hilik aurkitu zuten astelehenean. Gene-oro indarkeriaren bidetik doa Nafarroako Gobernuaren ikerketa lerro nagusia, neska indarkeria zantzuak baitzuten. Azaldu dute naren arabera, uestezko hiltzailea eta biktima Nafarroan, ospitale beraren egiten zuten lan. Ikerketa zabalik dago oraindik.

Iragarki laburrak

SALGAI

■ **Etxea.** Etxebizitza salgai, Tolosako Alde Zaharrean. Merkea, obra egin beharra dago. Interesatuek deitu 657 23 00 11 edo 634 91 94 82ra.

■ **Desguazadora eta zaldi pertxeroia.** Desguazadora eta zaldi pertxeroia salgai. Interesatuek deitu 943 69 00 72ra.

BESTEAK

■ **Txakurkumeak.** Txakurkumeak oparitzen dira, bi hilabetekoak. Deitu 645 70 68 21 telefono zenbakira.



Paleta txapelketa jokoan da jada

TOLOSA » Atzo arratsaldean hasi zen Tolosa CFk antolatutako paleta txapelketa. Lehendabiziko partidak Zubeldia-Goitiak osatutako bikotearen eta Zelaia anaien artekoa izan zen. Ondoren, Lontxo-Nazabal eta Zubillaga-Elorza bikotearen arteko partidak ikusi ahal izan zen. Urtero legez, pilotarien lagunak eta paleta zale batzuk hurbildu ziren norgehiagokez gozatzerako eta lagunak animatzera. Gaur arratsaldean ere beste bi partidak jokatu dituzte. Hauek ere, ohiturari jarraituz, 19:00etatik aurrera izango dira. E EZEIZA

Abian da 2009 urteko egutegia osatzeko argazki lehiaketa

Gizartea » Tolargik eta Tolosagasak antolatzen dute lehiaketa; irailaren 29a izango da aurkezteko azken eguna.

ERREDAKZIOA

Tolargik eta Tolosagasak 2009 urteko Tolosako egutegia osatzeko argazki lehiaketa jarri dute abian berriro ere. Aurten argazkiek irudikatu beharko duten gaia *Tolosa eta bere jaiak* izango da. Ohiko moduan, Tolosaldeko herritar guztiek hartu ahaliko dute parte.

Argazki lehiaketan parte hartu nahi dutenek nahi adina argazki aurkeztu ahal izango dituzte To-

largiren (Rondilla kalea, 34 behe) nahiz Tolosagasaren (Arostegieta kalea, 18 behe) bulegoetan. Hauek paper fotografikoa edo CD formatoan eraman daitezke eta gehienezko neurria paperean 20x30 zentimetrokoa izango da, eta gutxienezkoa, formatu digitalean, 4 Mb-ekoa. Hala, aurkezten diren etatik 13 pertsonen eraman ahal izango dute saria, eta horietatik seik, urtebetez argia doan izango dute, eta beste horrenbestek, gasa.

Irabazleak sari berezia izango du, honek, urtebetez argia eta gasa ez du ordaindu beharko. Dena den, saritua Tolargiko eta Tolosagasako bezera ez bada, saria 2007ko argi edo gas fakturaren



Maider Gaztelumendik Uzturreri ateratako argazkia. M.G.

zenbatekoa ordainduko zaie, 600 euroko mugarekin, eta jasotzeko, iazko kontsumoaren egiaztagiria aurkeztu beharko dute.

Argazki lehiaketan aurkezteko azken eguna irailaren 29a izango da, eta lehiaketaren erabakia urria-

ren 15ean emango dute jakitera. Honen berri jakiteko Tolosako Udalaren webgunean (www.tolosakoudala.net) edo prentsa bidez egin ahal izango da. Epaimahaia Tolargiko kide batek, Tolosagasako kide batek, Tolosako Udaleko

ordezkari batek eta pasa den urteko irabazle batek osatuko dute.

Pasa den urteari dagokionez, Maider Gaztelumendik irabazi zuen 2008ko egutegiko argazki lehiaketa, Uzturreri ateratako argazki batekin.

Asteburu honetan berria

Hego Amerikako bi estatubururi

ELKARRIZKETA



«Bolivarrek aipatzen zuen aberri handi hori izan behar du Latinoamerikak»

Uztailak 12, larunbata

Fernando Lugo

PARAGUAIKO PRESIDENTEA

«Europa gure arbasoei lapurturikoa itzultzen baino ez da ari»

Uztailak 13, igandea

Evo Morales

BOLIVIARIKO PRESIDENTEA



Laburrak

Lolas Club-en kontzertua, gaur Frontonen terrazan

TOLOSA » Gau Giro egitarauaren baitako bigarren emanaldia izango da gaur Lolas Club taldeak emango duena. 22:30ean izango da eta Fronton kafetegiko terrazan egingo dute emanaldia. 2004. urtean sortu zen taldea eta bost kidek osatzen dute. 2007an Donostiako Pop-Rock lehiaketako saria irabazi zuen Lolas Club taldeak. Rock and roll musika egiten du buskoteak.

AHTri buruzko bideo proiektzioak gaur eta bihar

ALEGIA » AHTri buruzko bideo emanaldiak izango dira ikusgai gaur eta bihar Alegiako Kultur Etxean, hau da, Garagardo Festa irauten duen bitartean. Emanaldiak 19:00etatik 22:00etara izango dira etengabe, eta berrogei minutuko proiektioez osatuta egongo dira.

Arabako bazterrek ezagutzeko aukera hilaren 19an eta 20ean

ERREDAKZIOA

Manuel Larramendi Kultur Bazkunak antolatzen duen Euskal Herrian Barrena egitasmoaren baitan, hilabete honetako irteerari dagokionez, izen emateko epea zabalik da, hilaren 14a arte, txangoa 19-20ko asteburuan burutuko baita. *Arabako bazterrean, Aialatzen lurretan* leloa duen txango horretan Arabako bazterrek izango dira ikusgai, Urduña, Nerbioi ibaiaren jauzia, Delika edo Kexxa bezelako aldeak bisitatuz.

Informazio gehiago jaso nahi izanez gero 943-696-450 zenbakira dei daiteke (Iosu) edo txangoak@topagunea.com helbide elektronikora idatzi.

Tolosaldeko komunikabide batek
Kazetaritzan edota Euskal Filologian lizentziatuak
edo ikasleak behar ditu
lan poltsa osatzeko.

Interesatuak deitu **661 67 88 17** telefono zenbakira



Uztailaren 4koa konpentsatzeko, deitu doan 4 asteburutan.

Uztailaren 4an, ostirala, arazo bat izan zen mugikoren sarean hainbat orduz; horregatik, barkamena eskatzen dizuegu, baina ez dugu hitz hutsetan geratu nahi. Hori dela eta, konpentsazio bat eskaintzen dizugu, eta sortutako eragozpenak baino handiagoa izatea espero dugu.

- Zure mugikora erabilera partikularrekoa bada,
4 asteburutan Euskaltel mugikorekin doan hitz egitera gonbidatzen zaitugu.
- Zure mugikora erabilera profesionalekoa bada (autonomoak eta enpresak),
5. Seko deskontua izango duzu uztaileko fakturan.

Informazio gehiago nahi baduzu, sartu www.euskaltel.com web gunera edo deitu 1717 telefono-zenbakira.

Barkatu eragozpenak.





Joseba Otaegi eta Jexuxmari Mujika II. Mailako Gipuzkoako Aizkolari Txapelketaren finalean aurkitzen dira. Finala uztailearen 26ean jokatu da Mendaron.n.g.



Piragua ikastaroa. NOELIA LATABURU

Piraguismo ikastaroetan izena emateko aukera zabalik aurkitzen da

Kirolak » Iraila bitarte Kaxkardi Kirol Elkarteak egun bateko zein aste bateko ikastaroak antolatuta ditu.

A. IMAZ

Urtero bezala, aurten ere Kaxkardi Kirol Elkarteak Piraguismo ikastaroak antolatuta ditu. Maiatzetik irailera bitarte, aste osoko ikastaro trinkoak edo egun bateko irteerak antolatzen ari dira Kaxkardi-ko kideak.

Parte-hartzaileak 8 urtetik gorakoak izan behar dute eta izena eman edo informazio gehiagorako 636 63 86 35/677 48 89 10 telefono zenbakietara deitu behar da.

Helburuak eta kostua

Kaxkardi-koek azaldu dutenez, piraguismoko hastapenerako ikastaro honetan, «oinarrizko jakintzak ikasten dira; mugimenduak, piraguen erabilera eta kontrola, norabidea, piraguan askatasunez mugitzea lortu...». Horretaz gain, «naturarekiko sentsibilizazioa sendotu eta errespetua lantzea» ere Kaxkardi Kirol Elkartearen helburuen artean aurkitzen da.

Astebeteko ikastaroak 45 euroko kostua du eta egun bateko irteerak 10 laguneko taldeek egingo dituzte. Talde bakoitzak 200 euro ordaindu beharko du.

II. Mailako Gipuzkoako Txapelketaren finalera pasa dira Otaegi eta Mujika

Kirolak » Eskualdeko zazpi aizkolari aritu ziren txapelketetan eta hauetatik bik lortu zuten finalerako txartela.

ASIER IMAZ

II. Mailako Gipuzkoako Aizkolari Txapelketaren finala uztailearen 26ean jokatu da Mendaron. 18:00etatik aurrera sei aizkolari lehiatuko dira finalean eta hauen artean Tolosaldeko bi aizkolari egongo dira: Joseba Otaegi (Zizurkil) eta Jexuxmari Mujika (Ibarra).

Kanporaketa lehia

II. Mailako Gipuzkoako Txapelketaren finalerako txartelak Usurbilen (Gipuzkoa) banatu ziren iragan igandean. 16 aizkolari bi mul-

tzotan lehiatu ziren. Hauetatik zazpi eskualdekoak ziren: Joseba Otaegi, Jexuxmari Mujika, Mikel Matxinandiarrena (Leaburu), Mikel Belauntzarren (Berrobi), Xabier Alkizalete (Asteasu), Jokin Alkizalete (Asteasu) eta Iñaki Agirre (Ibarra).

Kanporaketa lehia aizkolari bakoitzak launa pago-enbor ebaki zituen; hots, bi kanaerdiko eta bi 60 ontzako.

Lehen txandan, Otaegi eta Ugarteburu jarri ziren probaren buruan hastapenetik. Hauek ez zuten arazorik izan sailkatzeko. Ondoren, eta hurrenez hurren, Telletxea eta Aratz Mugertza aritu ziren proban, eta hauek ere finale-rako sailkatu ziren.

Bigarren txandan, Mujikak eta Ugaitz Mugertzak hartu zuten probaren burua hasieratik, eta lanerdiatzen ere azkarrenak izan zi-

ren. Amaiera aldean ordea, Mugertzak behera egin zuen eta Zubizarretak egin zuen aurrera. Azkenean, Mujika eta Zubizarreta sailkatu ziren.

Otaegi eta Mujika indartsu

Otaegi eta Mujika finalerako lehen eta bigarren postuan sailkatu ziren. Eskualdeko bi aizkolariak indartsu daudela erakutsi zuten Usurbilen.

Kanporaketako sailkapen buruak, Otaegik, gorputzaldi onean aurkitzen dela aipatu zuen, «nahiz eta kanporaketara erreferentziarik gabe joan nintzen. Entrenamenduetan egur indartsuarekin aritu naiz eta ez nekien kanporaketa nolako egurrak egongo ziren. Finaleko lana bestalde, Usurbilgoa baino gustokoagoa dut». Finalean 4 kanaerdiko eta 60 ontzako bienbor ebakiko dituzte.

» KANPORAKETA SAILKAPENA

II. Mailako Gipuzkoako Aizkolari Txapelketa

Lehen seirak finalera.

(Eskualdekoak azpimarraturik).

1. Joseba Otaegi	08:29
2. Jexuxmari Mujika	09:00
3. Joxe Ugarteburu	09:13
4. Joxefelix Zubizarreta	10:19
5. Joxemari Teletxea	10:19
6. Aratz Mugertza	10:30
7. Ugaitz Mugertza	10:59
8. Mikel Matxinandiarrena	11:09
9. Joxemari Esnaola	11:17
10. Javier Aranbarri	11:36
11. Mikel Belauntzarren	11:49
12. Xabier Alkizalete	12:25
13. Jokin Alkizalete	12:38
14. Iñaki Agirre	13:53
15. Jexux Oiarbide	15:00
16. Xabier Aranburu	20:36

FISIO - ETXE

Etxez - etxeko fisioterapia zerbitzua

Monica de Dios Urquia (Fisioterapiari Diplomaturatu)

Material guztia eramaten dut (ohea, olio...ctab)

FISIO - ETXE

Erreserbak egiteko:
687 909 589

Donostia aldeko komunikazio enpresa batek ZUZENDARIA behar du

Eskaintzen da:

- Etorrizunean aukerak eskaintzen dituen lanpostua.
- Laneko kontratua.
- Soldata finkoa.

Eskatzen da:

- Kazetaritza edota euskal filologia ikasitakoa izatea.
- Euskaraz zuzen idazteko eta testuak zuzentzeko gai izatea.
- Iazera dinamikoak izatea eta harremanetarako gaitasuna edukitzea.
- Autoa izatea.

Kontuan hartuko da:

- Kazetaritzan eskarmentua izatea.
- Donostiarra edo ingurukoak izatea.
- Quark Xpress programa menderatzea.

Curriculum Vitae xehatua bidali abuztuaren 10erako.
gizabaliabideak@jarduna.net



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Joxean Tolosa Txapelketako partidak izango dira gaur eta etzi, Amezketan

Pilota » XIX. Txapelketa da aurtengoa; gaur, 21:00etatik aurrera izango dira partidak, gazte eta nagusien mailakoak.

ERREDAKZIOA

Joan den asteburuan hasitako XIX. Joxean Tolosa pilota txapelketaren bigarren jardunaldiak jokatuko dira asteburu honetan.

Hasteko, gaur, 21:00etatik aurrera, gazte eta nagusien mailako bina partida jokatuko dira. Horietatik bakarrean izango dira eskualdekoak lehian. Hala, laugarren partida, Altxoko Artola eta Berako Uharteren artekoa izango da.

Hurrengo partidak etzi jokatuko dira, 16:00etatik aurrera. Hemen ere lau norgehiagoka izango dira, gazte eta nagusien artekoak. Lehendabiziko partidari Iparraldeko Punpa eta Altxoko Erauskin aterako dira kantxara. Azkeneko jardunaldia berriz, Heraniko San Sebastianek eta Amezketako Belokik jokatuko dute.

Telefonoak Larrialdiak. ((112))

OSASUNA.

Alegialdea. Osasun z.: 943 653212

Anoeta-Alkiza-Hernialde.

Medikua: 943 65 23 39

Asteasu. Medikua: 943 692423

Baliarrain. Medikua: 943 889003

Berastegi-Elduain.

Medikua: 943 683361

Ibargoin. Medikua: 943 681134

Ibarraldea. Osasun etxea: 943 672411

Ikaztegieta. Medikua: 943 653329

Irura. Osasun zentroa: 943 690720

Leiza. Osasun z.: 948 510800

Orendain. Medikua: 943 655595

Orexa. Medikua: 943 682228

Tolosa.

Anbulatorioa, larriald: 943 461111

San Esteban: 943 006800

Gernikako arbola: 943 006900

Amarozko dispen: 943 672637

Asuncion klinika: 943 675799 -

943 67 53 90 (larrialdiak)

DYA: 943 672536

Gurutze Gorria: 943 674888

Villabona. Anbulat.: 943 006970

Zizurkil. Aiztondo zerb: 943 693930

GARRIAOK.

Renfe: 902 24 02 02

Donostiako autobusa: 943 361740

Tolosalde bus: 943 650621

Leitzarain autob.: 948 221015

Taxia: 943 670420

Taxia (Leiza): 608 873016

BESTERIK.

Ertzaintza: 943 538820

Tolosa-Udaltzaingoa: 943 675858

Tolargi: 943 650016

Iurrarendi egoitza: 943 670325

Tolosa gasa: 943 675320

» INKESTA

1. Esperientzia bezala zer moduzkoa izan da?
2. Gogorra egin al zaizue udaleku ibiltaria?



«Egun batzuk gogorrak izan dira, baina gozatu dut»

Asier Totorika

17 URTE, IURRETA

1. Lagun asko egon gara eta herri eta paraje asko ikusi ditugu. Bi edo hiru hilabete ezer egin gabe egon ordez, zerbait egin dugu.

2. Etapa batzuk gogorrak izan dira, baina gozatu dut, halere, jendeari zoz oinez eta bidaia egiten eta horrek gauzak asko errazten ditu, eta nekatu arren, ongi pasatzen duzu.



«Bi aste elkarrekin pasa eta gero lagunak egiten dira»

Irati Armendia

15 URTE, ATXONDO

1. Bi aste elkarrekin pasa ondoren lagunak egiten dira eta horretaz gain ezagutzen ez genituen tokiak eta parajeak ezagutu ditugu, Bizkaitik etorrita, aurretik ezagutzen ez genituenak.

2. Etapa batzuk gogorrak izan dira, baina lagunekin egotean dena ahazten zaizu eta gustura egondu naiz.



«Esperientzia polita da, gomendatzeko modukoa»

Unai Etxeita

16 URTE, GARAI

1. Esperientzia polita da, gomendatzeko modukoa. Deskonektatu egiten duzu, ohiko lagunetaz eta beste lagun batzuk ezagutzen dituztu.

2. Egun batzuk gogorrak izan dira, baina halere badaude disfrutatzeko momentuak ere, Euskal Herriko beste txoko batzuk ezagutu ditugu, eta naturarekin harremanetan 16 egun igaroko ditugu.



60 lagun inguruk 2 egun igaro dituzte Leitzan eta eskoletako gimnasioan lo egin dute. HITZA

Bizkaiko udaleku ibiltari bat herrian izan da bi egunez

Aisia » Nafarroa zeharkatzen ari dira oinez eta herenegun iritsi ziren Leitzara eta gaur jada Goizuetara abiatu dira.

NAIARA GARZIA

Durangoko euskara elkarrekin antolatuta udaleku ibiltaria egin dute 60 lagunek Izabatik abiatuta Heraniraino eta 2 egun Leitzan igaro dituzte, «gorputzak pixka bat deskantsatzeko». Lier Gonzalez begiraleak azaldu duen bezala. «Guk duela 4 urte hartu genuen ardura ere gazteekin gauzak egitea eta egin izan ditugu, eta horretaz gain, udan udalekuak egiten ditugu».

Orohar 12 begirale dira 40 lagunetatik gora bildu dituen udaleku ibiltariaren buru. «Berez daudena ikazte 14 urtetatik 18ra dira baina gehienak 15etik 16 urte bitartekoak dira, 18korik ez dago inor». Uztailean Ilean abiatu ziren Izabatik, Piedra de San Martindik eta 16an amaituko dute Nafarroan zehar egin duten ibilbidea. Hau amaitu ondoren beste udaleku bat egingen dute, baina finkoa, gazte-txoekin. «Hori Bizkaiko herri txiki batean egingen dugu». Udaleku ibiltariaren parte hartu duten gazteak Durango aldekoak dira: Iurretakoak, Abadiñoakoak, Elorriokoak eta inguruko beste hainbat herritakoak.

Leitzan atsedean hartu dute eta eguraldi ona egin duenez, arropa garbitzeko ere aprobetxatu dute. Igerilekuan ere izan dira eta udaleku amaitzear dagoenez, eta Heranin jaialdi bat egiteko asmoa dutenez, hori prestatzen ibili dira. Gainera, malabareak ere egin di-

tuzte, atzo bazkalarrean horretan aritu ziren. Oinez egin dituzte etapa guztiak.

Ibilbidea

«La piedra San Martindik abiatu ginen uztailean Ilean eta lehenengo gaua Santa Engrazian igaro genuen joan. Bertan 2 gau igaro genituen, eta lehenengo egunean Kakueta bisitatu genuen. Taldea bitan banatu genuen eta batzuk goizean joan ziren eta besteak arratsaldean «Herrian gelditu ziren pelukeria tailerra egin zuten, tailer ezberdinak egin baititugu egun hauetan zehar, oinez ibiltzeaz gain». Ondoren Iratira joan ziren eta Otsagiko kanpong batean egin zuten lo. Hurrengo egunean, Irati zeharkatu ondoren Orbaizetara iritsi ziren eta bertan ere kamionetan daramatzaten kanping dendetan egin zuten lo. «Normalean saiatu gara herrietan eskolak edo frontoiak bilatzen baina 60 pertsona inguru sartzea ez da errazta».

Orbaizetatik Eugira joan ziren. «Etapa hori oso gogorra izan zen, 22:00 aldera iritsi ginen Eugira, etapa luzatu egin zitzaigun, eta desbiatu behar izan ginen, baina gazteek ongi erantzun zuten».

Eugitik Larraintzarrera joan ziren. «Inguru hori ez genuen ezagutzen eta apurbat harrituta gelditu ginen, zelako polita den ikusita, eta ez genuen ezagutu ere egiten». Larraintzaren frontoian egin zuten lo. «Hor hasi ginen tienda de campañak alde batetara uzten eta frontoietan talde moduan denak batera lo egiten, horrek taldea oraindik gehiago batzuen baitu, eta horregatik nahiaigo ditugu frontoiak eta eskolak erabili, horrek asko batzen duelako. Kanpinetan azkenean 4 pertsona daude denda

batean eta elkarrezagutzen ez duen jendeak ez du elkarrekin egoteko aukerarik, eta azken finean helburua denok talde bat izatea da. Horretarako baimenak alde aurretik eskatu genituen».

Larraintzartik Lekunberrira joan ziren eta gau bat bertan igaro ondoren, Plazaolatik barrena iritsi ziren herenegun Leitzara eta gaur goizean Goizuetara joan dira.

Amaiera Hernanin

Goizuetatik Hernanira joanen dira eta bertan jaialdi bat egingen dute. «Goizuetan 2 gau pasako ditugu, han dantza ikastaro bat egiteko asmoa daukagu, batzuk dantzariak baitira, baina besteak ez. Handik Hernanira joanen gara. Egunean zehar jaialdia egingen dugu, dantzariekin eta kaleantzariekin eta gauean bertso-afaria egingen dugu. Arzallus eta Colina etorriko dira ziurrenik, eta Miren Amuriza ere gonbidatuko dugu, orain arte parte hartu baitu udaleku hauetan».

Euskaraz komunikatzea

Lier Gonzalezek azaldu duenez, «helburu nagusia da euskaraz bizitzeta eta komunikatzea, ez ikastea, baina apur bat ohitzea, horretan sensibilizatzea eta ikustea ze garrantzi duen eta ze egoeratan dagoen. Honetaz gain, taldekideekin parte hartzen ikastea, beraiekin solidario izatea, ingurumena errespetatzen ikastea».

BELAUNTZAKO OSTATUA berriro ere zabalik

- PLATER KONBINATUAK
- EGUNEKO MEZUA
- KARTA (aurrez eskatuta)

943 670928



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Teléfonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoeta/Leizaola: 687 410 022. anoeta/leizaola@tolosaldeko hitza.info.
Ibarra/Leizaola: 687 410 032. ibarra/leizaola@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leitza/Leizaola: 687 410 118. leitza/leizaola@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:



eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Orexa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Irteerak

■ **Anoeta.** Promozioko bidaia egingo dute Alkartasuna Biltokikoek Briones herrira, Errioxan, hilaren 22an, upategi bat bisitatuz. Izen-ematea, Biltokian bertan egin daiteke 18:00etatik 20:00etara, 10 eurotan.
■ **Tolosa.** Eguneko irteerak antolatu dute Tolosatik Zaragozako Espora etzirako. Informazioa, 627 4193 64 telefono zenbakian.

Deialdiak

■ **Aiztondo.** Aiztondo mankomunitateak eskualdeko jubilatuen bazkaria antolatu du hilaren 20rako. Izena emateko 943 60 39 30 telefono zenbakira hots egin daiteke.
■ **Elduain.** Elduaingo Udalak 'oporetako argazki lehiaketa' antolatu du. kultura@elduain.com helbidera bidali behar dira argazkiak, izen abizenak jarri eta nahi bada komentario txiki bat ere bai. Herriko festetako egitarauan jarriko da sari banaketaren eguna eta ordua.

Erakusketak

■ **Tolosa.** Isabel Mujikaren margolanak Itaie tabernan daude ikusgai. 15 olio-lan dira, gehienak paisajiak.
■ **Alegia.** Mari Karmen Ezeizaren

artelanak ikusgai daude jubilatuen tabernan. Lore eta hosto lehorrez osatutako 30 collage dira. Asteartetik igandera.

Ikastaroak

■ **Elduain.** Patinaje ikastaroa antolatu dute, asteartean eta ostegunetan, 18:15ean, uztailean 24ra arte. Abuztuan 19an hasi eta 28 arte. Abuztuko orduetgia ikasleekin hitzartuko da.

Kirolak

■ **Asteasu.** Jaien barruan, VIII. Santamaña Igoera izango da etzi, 10:30ean (7 km). Izen-ematea, bi ordu aurretik edo 943 69 68 96 eta 943 69 34 00 telefono zenbakietan.
■ **Villabona.** Oza-Atxerito (2.358 m)-Zuriz mendiri irteera antolatu du Aizkardi mendiko elkarteak etzira. Izen-ematea, elkartearen bertan.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Ibarra.** Ugarte, M.T. Euskal Herria, 46. 943 67 32 74.
■ **Leitza.** Erbiti, O. Lizarraga kalea, 7. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanetan eta iritzien erantzunik.

A Agurrak



Urte askoan!

Gorka Altuna Esnaola.

Gaur 10 urte. Muxu handi bat familiaren partetik.



Urte askoan!

Zorionak loritz. Zure 7.

urtebetetzean. Muxu potxoloak, ondo pasa. Arratzaingo familia.



Urte askoan!

Ioritz (Tolosa).

Gaur 7 urte. Zorionak familia ta maite zaitugunon partetik.



Zorionak!

Eneritz Lasa (Abaltzisketa).

Gaur 2 urte. Bi muxu handi gure sorginari. Aita eta ama.



Urte askoan!

Eneritz Lasa (Abaltzisketa).

Zorionak eta muxu handi bat. Aitonak eta Amonak.



Zorionak!

Janitz Balerdi (Amezketan).

Muxu potolo bat etxeko guztien partetik, batez ere, Anderren partetik.

hitza info

elastiko berriak salgai
haur, gazte eta helduentzat

elastikoarekin
poltsa opari!

Harpidedunentzat
%25 merkeago

Tolosako HITZaren bulegoan eskuragarri.

K.M. KULTURAREN

Koldo Mitxelena Kulturarena
Urdaneta kalea 9 • 20006 DONOSTIA
Tel.: 943 11 28 93
programazioa@gipuzkoa.net
www.gipuzkoa.net/kultura

TRY AGAIN

Erakusketa
2008ko uztailek 26 - irailak 2
ERAKUSTARETOAN

LABIRINTOAREN ERBESTEAN
LITERATURAJORASIA

Erakusketa
2008ko uztailek 4 - abuztuak 21
GANIBARAN

0900 100 000
araba@itxas.com
10 10 1000 - 10 00 10 10
arabakultura@gipuzkoa.net